Arartekoaren 2022R-116-21 Ebazpena, 2022ko martxoaren 11koa. Horren bidez, Arartekoak Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikus dezala haurrak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate berezien denboraren gehieneko zenbaketaren hasiera-data.

Aurrekariak

1. Arartekoak ofiziozko jarduketa hau hasi zuen jakin zuenean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak JAR-DBE-023 Instrukzioa onetsi zuela; *"147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluak adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateentzat ezartzen duen denboraren gehieneko zenbaketaren hasiera-data"*ri buruzkoa. Ebazpenean bertan adierazten denez, 2020ko abenduaren 14an sartu zen indarrean.

   Instrukzio horren xedea honako hau da: *"berriz aztertzea 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateentzako ezarritako epearen zenbaketaren hasiera-datari ematen zaion interpretazioa eta aplikazioa".* Adierazitakoaren arabera, administrazioarekiko auzien epaitegiek emandako hainbat epairen ondorioz eman da instrukzioa. Epai horiek ez datoz bat Lanbidek aipatu artikuluan ezartzen den 12 hilabeteko epearen —eta luzapeneko beste 12— hasiera-dataren harira egin izan duen interpretazioarekin

   Era berean, erakunde honek diru-sarrerak bermatzeko errentari (DSBE) buruzko araudiaren interpretazioan emandako aldaketa horrengatik ukituak izan ziren pertsonek aurkezturiko hainbat kontsulta eta kexa jaso zituen.

   Instrukzioaren irismena hobeto ezagutzeko eta herritarrek aurkezturiko esku-hartze eskaerei behar bezala erantzuteko, defentsa-erakunde honek lehenengo informazio-eskaera bat helarazi zion Lan eta Enplegu Sailari. Bertan, zenbait gogoeta juridiko sartu ziren (errepikakorrak ez izatearren aurrerago aipatuko ditugu).

   Zehazki, xehetasun gehiago eskatu ziren gai hauei buruz:

   a) Jarraibideak zer kasuri eragiten dion zehatz-mehatz azaltzea, hau da, ea semealabak jaio aurretik etxebizitza partekatzen zuten pertsonei soilik eragiten dien edo, aitzitik, beste kasu batzuei ere eragiten dien, non beharrizan ekonomikoengatik edo gerora sortutako beste arrazoi batzuk direla-eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 c) artikuluan aurreikusitako senideekin etxebizitza partekatu behar duten.

   b) Epai judizialen kopia edo erabaki judizialen erreferentzia zehatza, jarraibidean adierazitakoaren arabera, berau onestea ahalbidetu dutenak.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

c) Zer iritzi duzun jarraibidearen izaera juridikoaren inguruan egindako gogoetari buruz eta halako irismena duen xedapen batek erregelamendu-maila izateko beharrari buruz.

d) Interesgarria izan daitekeen beste edozein kontu.

2. Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzuna Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenaren bidez iritsi zen.

"JAR-DBE-023 Jarraibideak, "147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluak adingabeak beren ardurapean dituzten bizikidetza-unitateentzat ezartzen duen gehieneko denbora zenbatzen hasteko datari buruzkoak, zenbaketa hori hasteko kontuan hartu beharreko data argitzea du xede.

Artikulu horrek aipatzen dituen bizikidetza-unitate berezien helburua da pertsona horiek babestea gertakari batek aldi baterako eragindako egoera batean; hain zuzen ere, denbora jakin bat ematen zaie egoera honi aurre egiteko[1].

Adingabeak beren ardurapean dituzten bizikidetza-unitate berezien kasuan, ***adingabearen jaiotza edo adopzioa da babesa eragiten duen gertaera****. Arauak, alegia, 147/2010 Dekretuak, babes handiagoa eman nahi die adingabe bat beren kargu izateagatik kalteberatasun-egoera larriagotu zaien pertsonei. Horregatik, 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako* ***gehieneko epea zenbatzen hasten da****, hain zuzen ere,* ***adingabe hori jaiotzen edo adoptatzen denetik****; izan ere, gertakari horrek, eta ez beste ezerk, eragiten du kalteberatasun-egoera larriagotzea.*

Beraz, JAR-DBE-023 Jarraibidearen bidez, Lanbidek ez du inolako erregelamendu-ahalmenik erabili nahi; aitzitik, Lanbidearen asmo bakarra da bere izapidegileei argitzea zer data hartu behar duten kontuan epe hori zenbatzen hasteko. Hala, manu hori berdin aplikatuko da aipatutako apea ezarri behar den kasu guztietan.

Azalpen hori, gainera, ***onartu eta berretsi egin du Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak; apirilaren 30eko 202/2019 Epaian****, auzialdiko magistratuak manu horri buruz egindako interpretazioa berretsi du. Hain zuzen ere, epaiak honela dio bosgarren zuzenbideko oinarrian: "Bai, sala honek Kode Zibilaren 3.1 artikulua aplikatuta manu horri buruz egindako interpretazioa bat dator auzialdiko magistratuaren irizpidearekin; alegia, adierazitako hamabi hilabeteak, beste hamabi hilabetez luzatu daitezkeenak, muga bat dira etxebizitza berean bizikidetza-unitale bat baino gehaigo egoteko, eta egoera hori hasten da norbaitek "adingabe bat bere ardurapean" duen unetik, ..."*

[1] Nabarmendutakoa Arartekoarena da.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Auzialdiko magistratuak, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak 2018ko azaroaren 9an emandako 308/2018 epaian, hau adierazi du laugarren zuzenbideko oinarrian: "... Alegia, aipatutako hamabi hilabeteak –zeina beste hamabi hilabetez luzatu baitaitezke- muga bat dira etxebizitza berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago egoteko, eta ***egoera hori ez da hasten DSBEren eskaera egiteko unean, ez eta erroldatzekoan ere, baizik eta norbaitek 'adingabe bat bere ardurapean duen unetik****; kasu honetan, errekurtsogilearen alaba jaio den unetik epea, nahiz eta eskaera geroago egin".*

Esan behar da JAR-OBE-023 Jarraibideak ez duela 5.2 artikuluan ezarritako epearen interpretazio murriztailerik egiten; aitzitik, malgutu eta zabaldu egiten du. Izan ere, nahiz eta aipatutako aginduak 12 hilabeteko epea aurreikusi -beste 12 hilabetez luza daiteke-, jarraibideak adierazten du aurkeztutako eskaera epez kanpokotzat joko dela soilik gertaera eragilea gertatu eta 24 hilabeteko epea igaro bada; beraz, eskaera aurkez daiteke luzapenari dagozkion 12 hilabeteen barruan.

(...) Hala, interpretazio judizial horien arabera, Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako epea une honetan zenbatzen hasten da: "adingabe bat ardurapean izatearen" benetako egoera gertatzen den egunean, hau da, adingabea jaiotzen denetik edo adoptatzen den egunetik aurrera, kontuan hartu gabe diru-sarrerak bermatzeko errenta aurrerago eskatu den ala ez.

Irizpide hori aplikatuta, adingabea jaio edo adoptatu zenetik 24 hilabete igaro ostean amaituko litzateke artikulu horretan ezarritako epea*. Hau da, adingabe bat ardurapean duen bizikidetza-unitate bereziaren iraupena ezingo litzateke 24 hilabetetik gorakoa izan, haurra jaiotzen denetik edo adoptatzen denetik zenbatzen hasita.*

Jarraibide hori aplikatzearen azken ondorioa da adingabeak bere kargura dituen bizikidetza-unitate bereziaren izaera lortzeko egindako eskaera oro epez kanpokotzat joko dela, baldin eta egitate eragilea gertatzen denetik (ardurapean duen adingabea jaiotzen edo adoptatzen denetik) 24 hilabete igaro badira".

3. Lan eta Enplegu Sailaren erantzuna aztertu ostean, Ararteko egokitzat jo zuen bigarren informazio-eskaera bat bidaltzea, instrukzioaren edukiaren zenbait puntu argitzeko xedearekin. Bertan, azpimarratu zen interesgarria izango litzatekeela argitzea 24 hilabeteko muga bizikidetza-unitate berezi gisa prestazioa eskatu zuten unean dagoeneko harrera-familiarekin bizi ziren bizikidetza-unitateei aplikatu behar zitzaien beren-beregi, edo, aitzitik, Lanbidek denbora-muga hori bat-batean familia-loturak dituzten pertsonen etxebizitzan bizitzera igarotzen diren adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateei ere aplikatu nahi dien.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Duela gutxi, Lan eta Enplegu Sailaren erantzuna sartu zen erakunde honen erregistroan. Lanbideko zuzendariaren txostenean azpimarratu da interpretazioaren aldaketa hori zenbait erabaki judizialetan eutsi dela. Idazkian epai horien erreferentziaren berri ematen bada ere, azkenean, ez da horien kopiarik bidali.

Bestalde, Lanbidek adierazi du ez dela bereizketarik egingo jaiotza edo adopzioa gauzatzen den unean bizikidetza-unitate hartzailearekin bizi diren adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateen eta aurretik bizikidetza-unitate hartzailearekin bizi ez baziren ere bat-batean familia-etxebizitzara itzuli behar izan dutenen artean; jaiotzatik edo adopziotik 24 hilabete baino gehiago igaro diren arren.

Beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Espediente honek hizpide duen instrukzioaren azterketa juridikoa hasi aurretik, Arartekoak uste du atzerabegirako bat egitea komeni dela bizikidetza-unitate bereziaren figura diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko araudian arautzeko moduari dagokionez.

   Indarrean dagoen araudiak zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei bizikidetza-unitate independente izaera aitortzen die, familia-harremanen bat duten titularren etxebizitza berean bizi badira ere. Horrela, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2 artikuluak honako hau ezartzen du:

   "Salbuespen gisa, are artikulu honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetza-unitatetzat hartuko dira honako hauek:

   a) Zahartzaro, baliaezintasun edo alarguntasuneko ordaindutakoaren araberakoak diren edo horren araberakoak ez diren pentsioen onuradunak, baita haien ezkontidea edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batutako pertsona eta ekonomikoki haien mende dauden pertsonak ere.

   b) Etxeko tratu txarren biktima izanda, beren ohiko helbidea utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, horrelakorik izanez gero.

   c) Beren kontura adingabeak dituzten pertsonak[2].

[2] Nabarmendutakoa Arartekoarena da.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

d) *Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsona bakarrak, dela banantze edo dibortzio baten ondorioz edo nahiko baliabide ekonomikorik ez izateagatik, dela gizarte-zerbitzuek muturrekotzat jotako egoeraren batengatik*.

Eusko Jaurlaritzak, ***gizartearen bilakaerari eta****, bereziki, familia-egiturako ereduen bilakaerari erantzunez,* ***beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu****, aldi baterako harrerako formulak barne direla.*

3. 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, etxebizitzan edo bizitokian bizi diren gainerako pertsonak, are 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetako baten bidez aipatutako pertsonekin harremana dutenak, ***beste bizikidetzaunitate bateko kidetzat joko dira****".*

Legeak, beraz, aurreikusi egiten du familia batek adingabeak ardurapean dituenean banakako bizikidetza-unitate bat osatzen duela, aurreikuspen horri inolako denbora mugarik ezarri gabe.

Hori ez da horrela araudiaren garapenean, zehazki, 147/2010 Dekretuaren aipatutako 5.2 artikuluan, bizikidetza-unitate ereduak zehaztean, honako hau ezartzen da:

"2.– Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetza-unitatetzat hartuko dira honako hauek:

(…) c) Ekonomikoki beren kargura % 45etik gorako desgaitasun-kalifikazioa duten edota II. graduko 1. mailako mendetasuna edo handiagoa duten adingabeak edo pertsona helduak dituzten pertsonak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 legean aurreikusitakoaren arabera.

(…) Aurreko paragrafoan aipatutako c) eta d) kasuetan, bizi deneko bizikidetza-unitatetik bereizitako bizikidetza-unitate izaerari ***gehienez ere hamabi hilabetez eutsi ahal izango zaio, eta ezohiko kasuetan beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango da****".*

Erakunde honek gai hori kontuan hartu zuen 2017ko Diagnostiko-txostenean, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena[3]. Garai horretan **aipatu zen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen garapen arautzaileak**, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluagatik, **bizikidetza-unitate berezien iraupena mugatu zuela, izan ere, nahiz eta Legeak**

[3] Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

oraindik ere denbora mugarik ez ezarri, Dekretuak, ordea, hamabi hilabeteko gehieneko epera mugatzen zuen egoera hori, salbuespen gisa beste hamabi hilabete luzatzeko aukerarekin.

Aurreko arau garapenak —Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duen apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuaren 4. artikulua, 2 eta 3. apartatuak— ez zuen salbuespenezko egoera horietarako mugarik ezarri denborari dagokionez, ardurapeko adingabea adinez nagusia (hau da, hamazortzi urte) izatearen ondoriozko muga izan ezik.

Aipatutako Diagnostiko-txostenean, **Arartekoak epe hori luzatzeko aukerari buruz hausnartu behar zela adierazi zien, gutxienez, salbuespenezko kasu batzuetan**. Gomendio hori 18/2008 Legearen arau aurreikuspenarekin bat etorriko litzateke, 9. artikuluan honako hau ontzat jotzen baita: *"Eusko Jaurlaritzak, gizartearen bilakaerari eta, bereziki, familia-egiturako ereduen bilakaerari erantzunez, beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu, aldi baterako harrerako formulak barne direla".*

Horrela, defensa-erakunde honen iritziz, euskal gizarteratze-sistemak dituen helburuekin bat datorren jarduketa bat **denbora-muga horren salbuespen batzuk aurreikustea** litzateke. Horrela, Lanbidek oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatuta jardun ahal izango luke, eta, zenbait egoeratan baimendu familia-unitateetan adingabeak ardurapean dituzten bizikidetzaunitateen harrera, **gutxienez, koordinazio instituzional horrek bizitoki alternatiboa eman ahal dien arte, non bizikidetza-unitate arrunt bat eratzeko eta gizarteratze- eta ekonomia-prozesuarekin aurrera jarraitzeko aukera izan.**

2. Araudi-garapenean sartutako mugaketaz gain, Lanbideren Irizpide agiriaren dokumentuak, 2017ko maiatzekoak[4], mugaketa berri bat gehitu zuen. Horren arabera adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate bereziak eratzen dituzten pertsonak ezin diote salbuespen horri heldu beste une batean salbuespen horri heldu bazioten, nahiz eta goian aipatutako araudian aurreikusitako 24 hilabeteko epea ez agortu.

Zehazki, adingabeak ardurapean dituen bizikidetza-unitatea zehazteari buruzko 1.5 puntuko dokumentuak honako hau dio:

> *"147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluaren arabera, BUtzat hartuko dira honako ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak edo pertsona multzoak:*
>
> *"Artikulu honetako 1. paragrafoko b) idatzi-zatian aurreikusitako loturaren bat (ezkontzaren edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor bat, laugarren*

[4] Eskuragarri hemen: https://www.lanbide.euskadi.eus/dbe/-/informazioa/erizpideak/

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

mailarainoko odol-ahaidetasuna, bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasuna...) daukaten pertsonen etxebizitzan bizi direnean ere, bizikidetza-unitatetzat hartuko dira (...)".

Horrenbestez, beren ardurapean adingabeak dituzten bizikidetza-unitate guztiek adingabeen BU gisa kobratzeko eskubidea izango dute gainerako baldintzak betetzen badituzte, ***betiere bi urteko mugarekin eta 147/2010 Dekretua[5] indarrean hasi zenez geroztik ez badira egon adingabeen BU gisa****".*

3. JAR-DBE-023 Instrukzioa DSBEari buruzko araudian bizikidetza-unitate bereziaren (haurrak ardurapean izateagatik) figurari dagokionez egin den azken aurreko aldaketa da. Izan ere, duela gutxi, Lanbideren irizpideen dokumentu berria argitaratu da, 2022ko urtarrilekoa. Bertan, aztertzen ari den instrukzioko interpretazio berdina jasotzen da.

Horren azterketari dagokionez, instrukzioaren edukiaren zati bat kopiatzea merezi du:

"Ez da zuzena Lanbideren ohiko jarduketa, hots, izatea 24 hilabeteko mugaren hasiera DSBE eskatzeko datarekin edo bizikidetza–unitate hori integratzen den helbidean erroldatuta egotearekin lotzea.

Interpretazio judizial horien arabera, Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako epearen zenbaketaren hasiera "adingabe bat ardurapean izatea" egoera erreala gertatzen den eguena hasten da, adingabea jaio edo adoptatzen den egunetik, DSBE eskaera noiz aurkeztu den kontuan hartu gabe".

Eta honela amaitzen da:

"Beraz, artikulu horretan ezarritako epearen zenbaketa ***haurra jaio edo adoptatu zenetik 24 hilabete igaro ondoren amaituko da****. Hau da,* ***adingabeak ardurapean dituen BU bereziaren iraupena ezingo da 24 hilabetetik gorakoa izan, haurra jaoitzen edo adoptatzen denetik zenbatzen hasita.***

Epez kanpokotzat joko da *adingabeak ardurapean dituen bizikidetza-unitate bereziaren izaera lortzeko eskaera oro,* ***gertaera eragilea (ardurapeko adingabearen jaiotza edo adopzioa) gertatu eta 24 hilabete igaro ondoren aurkezten bada****".*

Hala, gaur egungo interpretazioak bizikidetza-unitate berezien iraupena mugatzen du, izan ere, ezartzen baitu 24 hilabeteak zenbatzeko epea gertaerarekin berarekin hasten dela, hau da, haurra jaiotzen denean edo adopzioa gauzatzen denean, eta

[5] Nabarmendutakoa gurea da.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

ez da aurreikusten bereizketarik kasuistika desberdinen artean, ez eta pertsona edo kolektiborik zaurgarrienentzako salbuespenik ere.

Enplegu-erakunde autonomoaren erantzun-idazkian honako hau adierazten da: *"**Adingabeak beren ardurapean dituzten bizikidetza-unitate berezien kasuan, adingabearen jaiotza edo adopzioa da babesa eragiten duen gertaera.** Arauak, alegia, 147/2010 Dekretuak, babes handiagoa eman nahi die adingabe bat beren kargu izateagatik kalteberatasun-egoera larriagotu zaien pertsonei. Horregatik, 147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritako **gehieneko epea zenbatzen hasten da, hain zuzen ere, adingabe hori jaiotzen edo adoptatzen denetik; izan ere, gertakari horrek, eta ez beste ezerk, eragiten du kalteberatasun-egoera larriagotzea**".*

Baieztapen horren oinarria da **EAEANko Administrazioarekiko Auzien Salak interpretazio horren aldeko iritzia eman duela**, aipaturiko **202/2019 Epaian**. Hori adierazten da bosgarren zuzenbide-oinarrian:

> *"Bien, la interpretación de este precepto por esta sala, en aplicación del Art.3.1 Código Civil, es concorde con el criterio del Sr. Magistrado de instancia, sobre que los doce meses señalados, prorrogados por otros doce, son un límite a la existencia de distintas unidades de convivencia en el mismo domicilio, y que esta situación comienza desde el momento en el que existe la situación de tener 'un menor de edad a cargo´, en el caso de la recurrente desde que nace su hija, y que del expediente se desprende que la hija nació el NUM000 de 2014, y que desde ese momento pasa la Unidad de Convivencia de dos a tres personas, y que siendo presentada la solicitud de prestación de RGI por la recurrente en fecha 12 de enero de 2017, fue extemporánea y la Resolución impugnada es conforme al Ordenamiento Jurídico y por lo que la extinción acordada es ajustada a derecho".*

Hala ere, defentsa-erakunde honen ustez, ezin da alde batera utzi auzi-jartzailearen aipaturiko epaian azterturiko kasuan bere amarekin bizi zela dagoeneko 2013ko abenduaren 5az geroztik; eta egun hartatik, bere amarekin (DSBEaren titularra) batera, bi kidez osaturiko bizikidetza-unitate arrunt bat osatzen zuela. Hau da, EAEANak azterturiko kasuan, auzi-jartzailea bere amarekin bizi zen dagoeneko 2014an, eta une hartatik, prestazioa eskatzeko aukera izan zuen bizikidetza-unitate independente gisa. Ez zuen halakorik egin 2017ra arte, jaiotza gertatu zenetik 24 hilabete baino gehiago igaro zirenean.

Kasu jakin honetan, 2014an dagoeneko ematen ziren adingabe bat ardurapean izateagatik bizikidetza-unitate berezitzat hartua izateko beharrezkoak diren bi premisak —18/2008 Legearen 9.2. c) artikulua—.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

1. Bizikidetza-unitate eskatzailea ahaidetasun-lotura bat duten pertsonen etxebizitzan integratzea (edo dagoeneko integratuta egotea).
2. Adingabeak izatea ardurapean.

Erakunde honen iritziz, bizikidetza-unitatea legearen 9.2. c) artikuluan aurreikusitako kasuan sartu dadin, eta beraz horren iraupen-epea zenbatzen hasi dadin, **bi inguruabar horiek eman behar dira aldi berean**. Hori horrela, eskatzailea bere amarekin bizitzeak ez du esan nahi bizikidetza-unitate berezia osatzen dutenik; bat-batean ardurapean adingabeak izatearen gertaera ematen ez den arte (kasu honetan, jaiotzagatik; baina adopzioagatik ere izan ahalko litzateke). Era berean, ez litzateke bizikidetza-unitate berezitzat joko bere alaba modu independentean egongo balitz bizitzen, hau da, bere amaren etxebizitzan integratuta egon gabe. Kasu honetan, bere alabaren jaiotzak bizikidetza-unitateko kide-kopurua handituko luke, batetik bira, baina arrunta izaten jarraituko luke.

Ikuspuntu horretatik baieztatu daiteke **haurrak ardurapean dituen bizikidetza-unitate berezi bat osatzeko ezarritako epea ezin daitekeela hasi oraindik ez denean eman bi egitatezko oinarri horietako bat.**

Gauza bera gertatzen da instrukzioan adibide gisa planteatzen diren kasuetan; horiek guztiek zerbait dute komunean, hau da: adingabeak jaio edo adoptatu direla bizikidetza-unitate independente bat izateko asmoa duen bizikidetza-unitatea dagoeneko integratuta zegoenean haiekin ahaidetasun-harremana duten pertsonen etxebizitzan, azken horiek DSBEaren titular izan zein ez.

Hala, lehenengo adibideak honako kasu hau jasotzen du:

> *"1. adibidea:*
>
> *Emakume bat bere amarekin bizi da, zeinak DSBEa jasotzen baitu (2 pertsonako bizikidetza-unitatea). 2018-04-02an, bere semea jaio zen eta espedientean bizikidetza-unitatea aldatu zen, 3 kideko bizikidetza-unitatera. 2020-04-02an, DSBEa eskatu zuen adingabeak ardurapean dituen bizikidetza-unitate gisa (eskatzailea eta 2018-04-02an jaio zen bere semea).*

Instrukzioak adierazten duenaren arabera: *"Entzunaldi-izapide bat bidali beharko litzaioke jakinarazteko ezingo litzatekeela osatu adingabeak ardurapean dituen unitate bereizi gisa; DSBE-eskaera gertaera eragilea gertatu zenetik (bere semearen jaiotza; 2018-04-02an) 24 hilabete igaro ostean aurkeztu zuelako. Horren ondorioz, 147/2010 Dekretuaren 10.1 artikuluaren arabera, bizikidetza-unitate batean titular izaera izan dezaketen hainbat pertsona egonez gero, horietako bati bakarrik eman ahalko zaio DSBEa; eta kasu honetan, eskatzailearen amak dagoeneko espedientearen titular izaera du".*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Premisa beraren arabera ebazten dira Instrukzioan jasotako 2. eta 3. adibideak.

Horrekin lotuta**, Arartekoak egiten duen interpretazioa izango litzateke bi urteko epea honako bizikidetza-unitate hauei bakarrik aplika dakiekeela: haurra jaio aurretik** beste bizikidetza-unitate batekin batera **bizi ziren bizikidetza-unitateei**, baldin eta beste bizikidetza-unitatea ere DSBEaren titularra bada eta bi unitateek odol-ahaidetasunezko eta ezkontza-ahaidetasunezko harremanak badituzte beraien artean. Hori izango litzateke EAEANaren aipaturiko epaian aztertzen den kasua.

Beste kasu batzuetan, hala ere, 18 urtetik beherako adingabeak ardurapean dituen bizikidetza-unitatea ahaidetasun-harremanak dituen beste bizikidetza-unitate baten etxebizitzan integratu ahalko litzateke, berarengana jotzen badute bat-batean, arrazoi ekonomikoak, sozialak edo bestelakoak direla medio.

Hona hemen horren adibide izan daitekeen kasu bat: Covid-19aren krisiaren ondorioz eta bere egoera ekonomikoa okertzearen ondorioz, gurasoen etxera itzuli behar izan den pertsona bat, 7 eta 10 urteko bi seme-alaba dituena, eta etxebizitza horretan erroldatzen den egunetik aurrera DSBEa eskatzen duena. Kasu horretan, erakunde honen iritziz, gurasoen etxebizitzan erroldatzen denetik aurrera hasi beharko litzateke bizikidetza-unitate berezia izateko 24 hilabeteko epea, eta ez seme-alabak jaiotzen diren unetik aurrera.

4. Lanbideren erantzunean ukatu egin da bizikidetza ezinbesteko bi faktoreetako bat denik adingabeak ardurapean izateagatik bizikidetza-unitatearen legezko aurreikuspena abiarazteko.

Nolanahi ere, esan bezala, orain dela gutxi, erakunde autonomoak **irizpideen dokumentu berri bat** onetsi du, **2022ko urtarrilekoa.** Horren edukia, bizikidetza-unitate bereziei dagokienez, **berrikuntzak gehitzen ditu 2017ko irizpideen dokumentuko testuari dagokionez.** Zehazki, *adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate bereziei* buruzko 2.4.3 apartatuan:

> *"Bizikidetzako unitate bereiziaren izaerari bi urtez eutsi ahal izango zaio gehienez, honako hauek kontuan hartuta:*
>
> *- Adingabeak ardurapean dituzten pertsonen kasuan, adingabea jaiotzen denetik edo adoptatzen denetik, DSBE eskaera aurkeztu den eguna edozein dela ere.*
>
> *- Adinez nagusi izanik % 45eko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen kasuan, edo II. graduko 1. mailako mendetasun-sailkapena edo handiagoa dutenen kasuan, bizikidetza hasten den unetik, DSBE eskaera aurkeztu den eguna edozein dela ere.*

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Ondorioz, ardurapeko adingabeak edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak dituen bizikidetzako unitate bereziaren izaera lortzera bideratutako eskaera oro epez kanpokotzat joko da, baldin eta ardurapeko adingabea jaio ***edo adoptatzen denetik edo, mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan, bizikidetza hasten denetik bi urte igaro ondoren aurkezten bada.*** *Beraz, ezin izango da bizikide dituen senideetatik bereizitako bizikidetzako unitate gisa eratu; aitzitik, senideen bizikidetzako unitatean integratuko da.*

Bi urteko denbora-tartea igaro ondoren, bizikidetzako unitate bereizia iraungi egingo da, eta senideen bizikidetzako unitatearen barnean sartuko da".

Irizpideen dokumentuaren apartatu horretan jasotzen da **enpleguko erakunde autonomoak hartzen duela kontuan** ohiz kanpoko bizikidetza-unitateen **(mendekotasuna duen pertsona bat ardurapean izateagatik) 24 hilabeteko denbora-mugaren hasiera ezartzen duen unea, hain zuzen ere, bizikidetza-unitate hartzaile baten eta bizikidetza-unitate berezi baten arteko bizikidetza hasten den unea dela.**

Hortaz, Lanbidek ondorioztatu du, kasu honetarako, **mendekotasuna duen pertsona bat ardurapean izatea ez dela nahikoa epe hori zenbatzen hasi dadin, izan ere, aldi berean eman behar dira** egitatezko baldintza biak**: ardurapean mendekotasuna duen pertsona bat izatea eta bizikidetza abiaraztea** familia-harremanak partekatzen dituzten pertsona titularrekin.

Mendekotasuna duten pertsonak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate bereziei dagokienez irizpide-zehaztapen hau egin ostean, Ararteko honek bere harridura erakutsi besterik ezin du egin bizikidetza-unitate berezien kasua ez delako modu berean arautu, adingabeak ardurapean izateagatik.

5. Arartekoak, bestalde, alderdi formal bat azpimarratu nahiko luke; izan ere, ez da oharkabean pasa behar **Lanbideren irizpideen dokumentuen edukia zein aztertzen ari den instrukzioa administrazio batek igorritako barne-dokumentuak direla.**

Horri dagokionez, hau da, administrazioen zirkular, instrukzio eta antzeko dokumentuen izaerari dagokionez, merezi du **Auzitegi Gorenak 2021eko urtarrilaren 26an igorri zuen 215/2021 Epaiaren**[6] edukia aipatzea. Bertan, Andaluziako Juntako Justizia eta Barne Saileko Barne, Larrialdi eta Babes Zibileko Zuzendaritza Nagusiak bidalitako zirkular baten arau-balioari dagokionez, honako hau azaltzen da:

"Se trata, por tanto, de un contenido propio de una circular como es el de fijar unos criterios o pautas interpretativas, aclarando o ilustrando a los funcionarios sobre la interpretación del Reglamento efectuada por el superior

[6] ECLI:ES:TS:2021:215.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

jerárquico, a fin de unificar los criterios de su aplicación por los órganos y unidades que de él dependen y conseguir una interpretación y aplicación homogénea de la norma. Ofrece, por tanto, ***una interpretación para exclusivo uso interno***[7]*, pues sólo los órganos dependientes de la Dirección General que la emite son sus destinatarios, sin que tenga incidencia ni vinculación alguna para* ***los terceros administrados que en absoluto están sometidos a esta interpretación efectuada por la Dirección General***[8] *y que, si la consideran desacertada, pueden expresar tal disconformidad al impugnar los actos de aplicación del reglamento que la asuman".*

Azalpenaren argitasunagatik, nahitaez aipatu behar da 2020ko ekainaren 11ko Autoak[9], Auzitegi Gorenarenak, honako hau adierazi zuela instrukzioen eta zirkularren izaera juridikoari buruz:

- *"…con independencia del nomen iuris que puedan adoptar tales resoluciones, las meras instrucciones carecen de naturaleza reglamentaria, al tratarse de una manifestación de la potestad autoorganizativa de la Administración pública, consistente en la capacidad de dirigir la actividad interna, mediante órdenes o pautas de funcionamiento de los órganos superiores a los inferiores que dependan jerárquicamente entre sí. De este modo, al no innovar ni formar parte del ordenamiento jurídico, en el que se integra, la instrucción no trasciende a los ciudadanos, al quedar reservada al ámbito interno de la propia Administración pública (efectos ad intram), aun cuando tengan la vocación de regir en las relaciones de los respectivos órganos administrativos con los ciudadanos dentro del ámbito establecido por la norma legal o reglamentaria que regule una determinada actividad prestacional o de relación con ellos."*

Era berean, ildo horretatik, Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 21eko Epaiak[10] honako hau ezarri zuen:

- *"El carácter informativo o no que haya de atribuirse a una determinada decisión de un órgano administrativo no depende solo de la clase de materia sobre la que verse. Lo verdaderamente decisivo es el alcance y significación que su autor otorgue a dicha decisión".*

Horrek esan nahi du prestazio bat eskuratzeko eta iraungitzeko betekizun espezifikoak instrukzio baten bidez zehaztea ez dela bakarrik barneko kontu bat, ez eta autoantolaketari lotutako kontu bat; aitzitik, administrazio-antolamendutik

[7] Nabarmendutakoa Arartekoarena da.
[8] Nabarmendutakoa Arartekoarena da.
[9] [ECLI:ES:TS:2020:4421A].
[10] [ECLI:ES:TS:2006:4198].

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

kanpoko hirugarrenak lotzen ditu. Eta, gainera, *ex novo* arautzen ditu garrantzi bereziko gaiak (esan liteke gai horiek **erregelamendu bat behar dutela horiek jasoko dituen tresna arautzaile gisa, eta ez instrukzio huts batek**).

Laburbilduz, **Auzitegi Gorenaren 2021eko apirilaren 29ko epai berriak**[11] **dioen bezala, erabakigarria ez da aukeratu den tresna juridikoa (hau da, barne-instrukzio edo zirkular batera jo izana), bazik eta horren edukia**.

Adierazpen judizial horiekin bat etorriz, defentsa-erakunde honek uste du autoantolaketa-alderdietarako eta barne-informaziorako emandako barne-erabilerarako dokumentu bat, babesten duen beste arauzko oinarririk gabe, ezin dela erabili diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea edo iraungitzea dakarren araudi bat edukiz hornitzeko.

Hori horrela, instrukzio horrek kudeatzeko eta irizpideak bateratzeko erabilera esklusiboa izan behar du administrazioaren beraren barruan, baina ezin du betebehar berrien edo iraungitzeko arrazoien iturri izan, eta ezin ditu hain zorrotz mugatu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea aitortzeko edo mantentzeko bideak. Puntu honetan, gogoratu behar da 18/2008 Legean ez dela mugatzen adingabeak ardurapean dituzten eta horiekin ahaidetasun-harremanak dituzten bizikidetza-unitateen harreraren iraupena; eta 147/2010 Dekretuan, 8/2018 Legearen 9. artikulua garatzen den puntuan, bizikidetza-unitate bereziaren iraupenari dagokionez bakarrik ezartzen dela denbora-muga; ez da horren hasiera-datarik jasotzen.

6. Azkenik, erakunde honek uste du Lanbidek DSBEa bezalako eskubide subjektibo bati halako muga bat ezartzea birplanteatu beharko lukeela, ez baitio **behar bezala erantzuten EAEko herritarrek gaur egun duten etxebizitza-premia egoerari**.

Ildo horretan, enplegu-erakunde autonomoak ez luke alde batera utzi behar hainbat taldek **zailtasun bereziak dituztela alokatzera (eta are gehiago erostera) bideratutako etxebizitzen merkatu librera sartzeko**. Horien artean aipatu behar dira prestazio sozialak jasotzen dituzten pertsonak, pertsona atzerritarrak edo gutxiengo etniko eta kultural jakin batzuk. Gogoeta hau dagoeneko egin zen 2008an, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen zioen azalpenean honako hau barne hartu zenean Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru sozioekonomikoaren funtsezko ezaugarrietako bat bezala: *"etxebizitzaren prezioak nabarmen egin du gora, alokairu- zein jabetza-araubidean, eta horren ondorioz, etxebizitza euskal familien arazo nagusietako bat bihurtu da".*

[11] [ECLI:ES:TS:2021:1664]

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Lan-nominarik ez duten pertsonek etxebizitza bat alokatzeko dituzten zailtasunak herritarrik zaurgarrienak erasaten dituen errealitate bat da. Horrekin lotuta, babestutako etxebizitza eskaerei dagokienez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren azkenengo txostenaren[12] arabera, 76.640 eskaera aurkeztu dira; horietatik, 59.792k alokairuko pisu bat eskatu dute. Alokairuko parke babestua, 2019an, 23.974 etxebizitzek osatzen zuten[13].

Beraz, zoritxarrez, eraginpeko administrazioek guztiz erantzun ezin duten eskaria da. Horrek azaltzen du familia-nukleoek eta banakako beste bizikidetza-unitate batzuek etxebizitza partekatzeko duten beharra.

Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak berak (34.3. artikulua) ere, edo Europako Gutun Sozial berrikusia bera (31. Artikulua[14]) azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Testuinguru horretan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen (aurrerantzean, EL) 7. artikuluak etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea eta etxebizitza edo bizitoki bat legez okupatzeko eskubidea aitortzen die administrazioauzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsona guztiei.

Etxebizitzaren arloan etxebizitza premia berezia duten taldeak berariaz definitzen duen araudi autonomikorik ez dagoenez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, oro har, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzko maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak (aurrerantzean, maiatzaren 14ko 1/2013 Legea) 1.2 artikuluan deskribatzen dituen kalteberatasun bereziko kasuetara jotzen du.

Zehazki, hauek dira artikulu horrek zerrendatzen dituen kalteberatasun bereziko kasuak:

"a) Familia ugaria, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

---

[12] Eskuragarri hemen: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/evaluacion_etxebide_2021/es_ovv_admi/adjuntos/evaluacion_etxebide_2021_es.pdf .

[13] Datu hau hemen kontsulta daiteke: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_vp/es_ovv_admi/adjuntos/vp.pdf

[14] **Europako Gutun Soziala (berrikusia)**. BOE número 139 de 11 de junio de 2021. 2021eko uztailaren 1ean indarrean jarria.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

b) ***Guraso bakarreko familia-unitateak, gutxienez seme-alaba bat ardurapean dutenak.***

c) ***Adingabe bat dagoen familia-unitatea.***

d) Kidetako batek % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna, mendekotasun-egoera edo lan-jarduera bat egiteko ezintasun iraunkorra aitortua duen familia-unitatea. (...)".

Hortaz, etxebizitza eskuratzeko zaurgarritasun berezikotzat jotzen diren kolektiboak zehazterakoan administrazioak berak duen diskrezio-ahalmena baliatuz, haurrak ardurapean dituzten familiak txertatu ditu eta, zehazkiago, adingabeak ardurapean dituzten guraso bakarreko unitateak. Familia horiek dira, hain zuzen ere, batez ere emakumeak buru dituztenak, gainerakoekin alderatuta langabezia eta lan-prekarizazio tasa altuagoak eta erreferentziazko pertsonen diru-sarrera gabeziarekin, etxebizitzarekin eta diru-sarrerarik ezarekin loturiko arazo larriak erregistratzen dituztenak. Horren harira, 18/2008 Legearen Zioen Azalpenean dagoeneko ohartarazi zen hura onetsi zen unean pobrezia emakumeak eta guraso bakarreko familiak jasaten ari zirela. Hori horrela, legea onetsi zenean, edozein motatako pobreziaren eragina gutxienez bost aldiz handiagoa zen emakume baten ardurapean dauden familia-unitateetan.

Igarotako denbora gorabehera, pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkestetako datuek[15] gizarte-talde horretan jartzen dute oraindik ere gabezia materialaren fokua.

Hala ere, Lanbidek, interpretazio horrekin, badirudi ez duela kontuan hartu horrek etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun gehien dituzten aipaturiko kolektiboengan izan dezakeen eragina.

Arartekoaren iritziz, etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunek eta adingabeak ardurapean dituzten guraso bakarreko familia-kopuru handi baten zaurgarritasun-egoerak babes handiagoa eskatzen dute, hala nola bizitoki-esparru berean familia-loturak dituzten bi bizikidetza-unitate bizi ahal izateko aurreikuspena, 18/2008 Legearen 9.2 artikuluan jasoa. Horrek, **bazterketa pertsonaleko egoerak nahiz gizarte- eta lan-bazterketa egoerak arintzen** lagunduko du, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar diren baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikoak ez dituzten pertsonen gizarteratzea erraztuko du (18/2008 Legearen 1. artikulua).

7. Ondorio gisa, Arartekoak azpimarratu behar du indarrean dagoen 18/2008 Legeak berme gehiago eskaintzen dituela bizikidetza-unitate berezi horien legitimazioari eta

[15] Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/informazioa/pobreziaren-eta-gizarte-ezberdintasunen-inkesta-pgei/web01-s2enple/eu/

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

iraupenari dagokienez, horien ondorengo garapenari dagokionez baino. **Legean ez da mugatzen bizikidetza-unitate bereziaren zenbaketaren data**. Aurreko araudiak (198/1999 Dekretua) bizikidetza-unitate berezi izaera luzatzeko aukera ematen zuen, seme-alabek 18 urte bete arte. 18/2008 Legea (147/2010 Dekretua) garatu zuen dekretuak bizikidetza-unitate berezien denbora-iraupena mugatu zuen, eta horrek adingabeak ardurapean dituzten familiei eragin zien, izan ere, etxebizitzaz aldatu behar izan zuten DSBEaren onuradun izateko, kolektibo jakin batzuek etxebizitza bat eskuratzeko duten ezintasunetik eratorritako zailtasunekin.

Instrukzioak eta irizpideen bi dokumentuek (2017koa eta 2022koa) are gehiago mugatu dute, hasiera-data bat ezarri baitute, eta horrek eragin du seme-alabak ardurapean izateagatik bizikidetza-unitate berezi gisa aitortzeko aukera egoera oso mugatuetara murriztu da.

Bizikidetza-unitate berezi bat zenbatzeko hasiera-data barneko tresna baten bidez zehazteak **hirugarren pertsonak lotzen ditu**, eta horregatik ikusi da ez dela bakarrik barneko kontu bat, ez eta autoantolaketari lotutako kontu bat; **aitzitik, eskubide bat eskuratzeko baldintzak arautzea du helburu**. Instrukzio hau ez da egin onartzeko legezko prozedura baten arabera, ez da dagokion aldizkarian argitaratu, eta ezin da aurkaratu. Beraz, ez du hirugarrenentzako indar loteslerik izan behar, Espainiako Konstituzioaren 9.3 eta 103.1 artikuluak aplikatzean edota Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.a artikulua aplikatzean. **Horregatik, Arartekoaren iritziz, gai hori tresna arauemaile egokiaren bidez arautu beharko litzateke**, ez baita soilik aplikatu beharreko araudiaren interpretazio bat, hura berritu ere egin behar baita.

Gainera, Arartekoak 2017. urteko diagnostiko-txosten horretan Lanbideri eman zitzaion gomendioa azpimarratu du; hau da, gogoeta egin behar dela **bizikidetza-unitate berezientzako epea luzatu ahal izateko aukeraren inguruan, salbuespenezko kasu batzuetan behintzat**. Hain zuzen ere, erakunde horren ustez, erregelamendu bidezko garapenetik eratorritako denbora-mugak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak zituzten gutxiengo kultural batzuei egiten zien kalte. Hori dela eta, ohikoa zen familia-harremanak dituzten hainbat bizikidetza-unitate etxebizitza berean bizitzea.

Era berean, Ararteko honek azpimarratu du beharrezkoa dela bereiztea bizikidetza-unitate berezi gisa prestazioa eskatu zen unean dagoeneko familia hartzailearekin bizi ziren bizikidetza-unitateak edo bat-batean familia-loturak dituzten pertsonen etxebizitzan bizitzera igarotzen diren haurrak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateak. **Jaiotza-data edota adopzioaren eguna datu argia eta objektiboa bada ere**, ez ditu barne hartzen gizarte-bazterkeria egoeran dauden familien kasuak eta alde batera uzten du familia-kopuru handi bat. **Familia horiek ez dute etxebizitza propiorik eta horrek eragindako gabezia egoerei aurre egin behar diete.**

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus

Ararteko
Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Arartekoaren ustez, indarreko araudia aplikatzerakoan, **kontuan hartu behar dira talde jakinek pairatzen dituzten etxebizitza bat izateko zailtasunak.** Hortaz, gizarte- eta bizitoki-bazterkeriako egoeran dauden familiek beren eskubideak baliatzeko duten edozein muga (araudian aurreikusita ez dagoena) ekidin beharko litzateke.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaio Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari:

Gomendioa

Arartekoak gomendatu du berrikusi dadila Lanbideren 2020ko abenduaren 14ko Instrukzioa —*"147/2010 Dekretuaren 5.2 artikuluak adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitateentzat ezartzen duen denboraren gehieneko zenbaketaren hasiera-datari"* buruzkoa— eta 2022ko urtarrileko Irizpideen Dokumentuko 2.4.3 apartatua —adingabeak ardurapean dituzten bizikidetza-unitate bereziei buruzkoa—.

Defentsa-erakunde honen ustez, ezin zaio denbora-mugarik ezarri, arau-maila nahikoa ez duten barne-izaera hutseko tresnen bidez, adingabeak ardurapean dituen bizikidetza-unitate izaerari (Legean ezarria).

Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da hausnarketa bat egitea esparru fisiko berean beren artean odol-ahaidetasunezko eta ezkontza-ahaidetasunezko harremanak dituzten hainbat bizikidetza-unitate bizitzeko ezintasunak dituen ondorioen inguruan; kontuan izanda kolektibo jakin batzuek (besteak beste, guraso bakarreko familiak, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak dituzten familiak, prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak edo gutxiengo kultural bateko kide izateagatik etxebizitza bat eskuratzeko bereizkeria jasaten duten pertsonak) oztopoak dituztela etxebizitza bat eskuratzerako. Arartekoaren iritziz, edozein araudi-mugaketa edo horren interpretazioa berrikusi beharko litzateke, zuzenean edo zeharka zailtzen duenean bizitoki duin bat gozatzea.

Prado, 9 01005 VITORIA-GASTEIZ Tel.: +34 945 135 118 Faxa: +34 945 135 102
E-mail: arartekoa@ararteko.eus www.ararteko.eus